

ERABAKIA, 2016ko urriaren 13koa Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, Horren bidez, ARABAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA Ikastetxe edo Zerbitzurako F 1234 Menpekoa lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia ebatzi da.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.-Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2015eko uztailaren 17ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen

Bigarrena.-Gerentearen erabakiaren bidez, 2016ko irailaren 26koa , aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea (2015eko urriaren 2an EAOn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAan argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAan).
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko EHAAan), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena.- Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordio hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAan).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

ERABAKI DU

Lehenengoa: Deialdi honetako lanpostuan hautatutako pertsona bitarteko funtzionarioa izendatzea, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena: Izendapena 2016ko azaroaren 7ko ondorio dataz egitea.

Hirugarrena: Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

Laugarrena: Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaileei eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena: Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2016ko urriaren 13an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia
(2013ko otsailaren 13ko EHAA)

UPV/EHUko GERENTEA

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA ZERBITZU BETEKIZUNA

2015/07/17

Esleipenduna: M^a Jesús Martínez de San Vicente Velasco
Lanpostuaren Izena: Menpekoa
Lanaldia: Arratsaldez jarraitua
Eref.: F 1234
Zenbatgarrena: 132
Maila: 13
Taldea: E
REskala: Menpekoa
H.E.: 1; 2015eko ekainaren 30a
Langunea: ARABAKO CAMPUSEKO GERENTEORDETZA
Campus: ÁLAVA/ARABA
BE:
Ondorio data: 2016ko azaroaren 7a

